

Arrautza jaurtiketa lehiaketaren XVI. edizioa

2014/05/07

Beste urte batez, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasle eta langileek euren habilezea erakutsi ahal izango dute arrautza bat babestu eta jaurtitzeko tramankulu bat sortuz. Lehiaketaren helburua arrautza babestuko duen jaurtitzeko-tramankulua diseinatzea da. Arrautza hautsi gabe urrunen jaurtitzea lortzen dutenek irabazten dute.

Parte hartzaileek arrautza babesteko erabili ditzaketen materialak hauek dira: 200 gr-ko kartulina, kontatuzko kola, eta kola. Tramankulua margotu ahal izango dute, horretarako tenperak, errotulagailuak edo margoak erabiliz.

Hiru sari emango dira:

- Hegaldi luzeena egiten duenari.
- Hegaldi berezi edo politena egiten duenari.
- Tramankulu politenari, erakargarrienari.

Honetaz gain, Informatika eta Telekomunikazioa Graduako ikasleei zuzenduriko bi lehiaketa antolatu dira.

Bideojokuen Diseinu eta Garapen lehiaketan, Informatika eta Telekomunikazioak Graduako 1. Mailako ikasleek POPBL oinarria duten sortutako bideojokoak erakusgarri jarriko dute. Lehiaketa 3. eraikuntzako kanpoaldean izango da, 11:00etatik 12:00etara.



Robot lehiaketan ordea, Telekomunikazioak Graduako 2. eta 3. mailako ikasleak, haririk gabeko robot bat garatu behar dute eta zirkuitua denbora gutxienean egiten duen robota izango da irabazle. Lehiaketa, 3. eraikuntzako kanpoaldean izango da, 11:30etatik 12:00etara.



Arrautza jaurtiketa lehiaketaren XVI. edizioa



Edizio honen irabazleak lehiaketa desberdinetan hauek izan dira:

Arrautza Jaurtiketa Lehiaketa:

- Distantzia: MU Cube taldea. Oihana Lameirinhas, Nekane Ugartetxe, Naikari Maiz, Jone Gantxeg, Victor Serat eta Irati Lamariano.
- Hegaldi berezia: Apatamonasterio taldea. Unai Agorria, Maite Iza eta Silvia Gonzalez
- Tramankulu politena: Txio Txio taldea. Marta Gomez, Itxaso Domingo, Garazi Salazar eta Leire Izagirre.

Bideojokuen Diseinu eta Garapen lehiaketa: Gravity Box taldea. Joseba Osa, Jon Apaolaza, Mikel Retolaza eta Xabier Perez.

Robot Lehiaketa: Txo taldea. Irati Aranaz, Aitor Duo, Nikolas Garde eta Unai Larrazabal.